


## 8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat Gabonetako Kanpamentu Teknologikoa

2013/01/07

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak eta Arizmendi Ikastolak antolatuta, Gabonetako Kanpamentu Teknologikoa ospatu da Arrasaten urtarrilaren 2tik 4ra.

Kanpamentua Mondragon Unibertsitateak Garaian duen Sistema Txertatueterako berrikuntza eraikuntza izan da, 8 eta 14 urte bitarteko 29 gaztetxok hartu dute parte eta LEGO etxeko Mindstorm Robotika proiektuak gauzatu dituzte.

Esperientzia arrakastatsua izan da. Batetik kanpamentuan ikasi duten bitartean primeran pasa dutelako. Bestetik gaztetxoek teknologia kontzeptuak barneratzeko erakutsi duten erraztasun eta naturaltasunagatik.



Gabonetako Kanpamentu Teknologikoa Mondragon Unibertsitatea